

OLABERRIA IZENAREN ERABILERA DELA ETA

1995-03-23

Antonio Berasategi

PROPOSAMENAREN AZALPENA

Euskal Herriko udalen izenak aztertu eta —batez ere— finkatu eta ofizial bihurtzeko asmoz, 1979. urtean, Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udalen izendegia* liburuxka eman zuen agitara.

Herri-izenen formak edozein moduz erabiltzen ziren eta nahasketa handi samarra sortzeko arriskua zegoen. Horregatik, Euskaltzaindiak, handik eta hemendik zetozkion hainbat eskeri erantzun bateratu eta homogeneousko eskaini nahian, izendegia osatzeari ekin zion. Koldo Mitxelena zenak hitzaurrean zioen bezala, “(...) egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari gidaritza moduko zerbait bere herritarrei eskaintzea, izendapen kontuan guztiok, han eta hemen bateratsu ibil gaitezen” (5. or.).

Gauza asko aldatu da orduetik, baina ezin ukatuzkoa da gorago aipatu izendegiak urratutako bidea guztiz onuragarria gertatu dela izenak finkatu eta arauzkotzeko garaian. Zenbait korapilo askatzeko lagungarri gertatu da eta, batez ere, euskaldunen idazpideak bateratu ditu, udalek berari heldu baitiote.

Izendegiaren balio orokorra aitortuta, txosten honen bidez, izenburuan aipatutako *Olaberria* Gipuzkoako herriaren deituraz xehetasun batzuk agertuko dira, Euskaltzaindiak, ondo baderitzo, bere egin ditzan eta —ondoren— proposatutako berrikuntzaren berria dagokion moduan zabal dezan. Bidebategi, *Olaberriaz* besteko kasuren batzuk aipatuko dira, aurrerago ikusiko denez.

Proposatzen den berrikuntza hori, *Olaberria* izenaren erabilera da eta ez beraren formaz.

Izendegian bertan agertzen den eran (122-123. or.), izen batzuen amaierako *-a* itsatsia da, hots, deklinatzean inolaz ere galtzen ez dutena; *Getaria* genuke eredu, *Donostia*, *Gipuzkoa* eta abar ere antzekoak izanik.

Badira, ordea —oraindik, ere beren sorrerako arrunt kutsua gorde dutelako edo— bukaerako *-a* hori izen arrunten artikulua pareko dutenak; horregatik,

izen arrunt gisa deklinatu ohi dira eta kasu batzuetan ez dute *-a-* artikulua tar-
tekatua agertzen. *Iruñea, Bizkaia, Azkoitia* eta abar ditugu era honetakoak.

Olaberriari gagozkiola zuzenago, lehenen atalekoa dela ageri da izende-
gian eta, hortaz, era honetara deklinatu behar:

- Olaberria
- Olaberriak
- Olaberriari
- Olaberrian
- Olaberriara
- Olaberriatik
- Olaberriako ...

Txosten honetako proposamenaren arabera, amaierako *-a* artikulua gisa era-
bili behar da eta, deklinatzean, era honetakoak irtingo dira:

- Olaberria
- Olaberriak
- Olaberriari
- Olaberrian

baina

- *Olaberrira*
- *Olaberritik*
- *Olaberriko ...*

* * *

Beraz —Euskal Herriko udalen izendegian datorren terminologia hartuz—
Olaberria -a erabilera onestea proposatzen da, *Olaberriaren* forma aldatu gabe,
amaierako *-a*, artikulua moduan erabiliz, alegia.

* * *

Erabilera aldaketa hau arrazoitzeko, bi eratako zergatiak aipatuko dira
txostenean zehar, biak ere izenak deklinatzeko dauden moduetan oinarrituak.
Batzuk, literatur tradizioari datoz lotuak eta besteak hiztunen gaur egungo era-
bilerari. Esan nahi baita, proposatzen den jokabidea ez duela erro soil bat eta
ez dela hona ekarri, ez lehenago horrela zelako bakarrik eta ezta gaur egungo
hiztunen jokabidea hori delako bakarrik ere. Azalduko diren ñabardura eta sal-
buespenak tarteko, bi era horietako zergatiak badaudelako egiten da proposa-
mena.

Beraz, batetik, idatzizko iturri batzuetako testigantzak hartu dira, J.I. Iz-
tuetaren liburuetaoak, hain zuzen.

Horiez gain, bestetik, inguruko euskal hiztunek, gure garaian, mintzatzean,
izena nola ahoskatu ohi dutenari begiratuko zaio. Neronek egin eta -Idiaza-

balgo etheen izen ofizialak erabakitzeko-Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari 1990ean bidali zitzaion *Idiazabalgo etheen izenak XVII. mendetik gaur egun arte* azterlanean jarriak berrekarriko dira, gehienbat, horretarako; geroztik auzi honetaz jaso ahal izan ditudan beste ekarpen batzuez osatuta agertuko ditut.

IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK

Euskaltzaindiaren gramatikari jarraiki, izen arruntak mugatzailearen premia du eta bereziak, aldiz, normalki ez du mugatzailearik onartzen (*EGLU-I*, 58. or.). Bereizketa zorrotz honek, ordea, baditu bere katramilak (Gramatikako hurrengo orrietan aztertuak) eta, adibidez, badira —mugatzailea eraman arren— identifikazio erreferentzia bakarra dutelako, semantika ikuspegitik berezien kideko diren beste batzuk.

Horrelakoak dira *Azpeiti* eta beraren taxukoak; izenak, deklinazio atzizkia hartzean, beste izen sintagma mugatu guztiek bezala jokatzen du. Horregatik, herriaren izena *Azpeitia* dela esango dugu. Gauza bat *liburua* dela esango dugun bezalaxe; ez *liburu*.

Era horretako izenak bereizteko garaian, izen sintagma osatzeko nola deklinatzen direnari begiratzea izango da zuzenena. *-a* artikulua mugatzailea ageri ez badute, bereziak izango ditugu ondorio guztietarako, baina, hartzen badute, arrunt bailiran portatuko dira.

Azterlan honetan ere, deklinatzeko modua hartu da metodologi ardatz. Izen arruntek inesiboan deklinatuta *-a* (artikulua?) ageri dute, baina bereziek ez. Horregatik kasu hori aztertu eta, *-a*-rik denentz ikusiz, izenak kasu absolutuan erabiltzean amaieran *-arik* baduen ondorioztatuko dugu; *-a* hori ez da, nolahi, artikulua izango derrigor, aurreraxeago argituko den bezala, itsatsia izan bailiteke.

Ez da beti erraza gertatzen *-a*- hori atzematea, fonetika bilakaeraren poderioz, ezkutatu egin bailiteke (ahozko azterketaren atalean sakonduko da zertxobait auzi honetan).

Tartekatuta *-a*- ageri badu, beraz, garbi dago izenaren bukaeran *-a* erabili behar dela kasu absolutuan. Halakorik ageri ez bada, garbi dago, orobat, kasu absolutuan ere ez duela sekulan hartuko.

Azpeitian esamoldeak (edo beraren parekoak ahozko ebakeran), orduan, herriaren izena *Azpeitia* (eta ez *Azpeiti*) dela erakusten digu eta *Ormaiztegin* delakoak, berriz, *Ormaiztegi* soila (eta ez **Ormaiztegia*) dugula zuzena.

Pentsa liteke, orduan, kasu absolutu horri zuzenean begiratzea, bide are zuzenagoa dela auzia garbitzeko, baina kontutan izan behar dugu, batzuetan

-adun izenek berek ere hiztunaren ahoan hori gabe azaltzeko joera dutela, aurrerago aipatuko diren fonetika prozesuak medio.

Izena *-az* bukatuta erabiltzen dela ondorioztatuta ere, gerta liteke hori artikulua ez izatea; izen temak itsatsia du. Hortaz, hurrena, korapilo hori askatu behar da. Horretarako, leku genitiboa, adlatiboa eta ablatiboa aztertuko dira; horietan *-a* ageri bada, izenak berezkoa eta apartaezina du eta, bestela, bakarrik kasu batzuetan hartu beharko du.

Donostiako esamoldeak, konparazio batera, izena *Donostia* dela esatera garamatza eta *Azpeitikok*, *Azpeitia -a* dela pentsatzera.

LEKU IZENEN AMAIERAKO *-a* J.I. IZTUETAREN LIBURUETAN

Juan Ignacio Iztueta zaldibiarra (1767-1845), Gipuzkoako gora-behera askoren jakitun ageri zaigu bere bi liburu nagusietan (*Guipuzcoaco dantza go-goangarrien condaira edo historia —GD laburtuta—* eta *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia —GC laburtuta—*); hainbat berri eskaintzen digu eta *-aztergai* den kasuan balio handikoa dena- herriz herri xehetzen ditu. Horri esker, behin eta berriz emango ditu deklinatuta beren izenak.

Ondorengo lerroetan azalduko denez, *-a* amaieraren auzian modu aski bateratu eta homogeneoan jokatzeko du, hots, izen bakoitza, ia beti arau berberari jarraituz erabilia, bai euskal izenetan, bai kanpotikoetan; gaztelaniatik hartutako izen arruntetan ere, *-ia* bukaerako bigarren bokala galtzeko joeraren aurrean, berak ederki eusten dio multzo osoari. Horregatik *-eta* Euskaltzaindiaren izendegiko ikerketen ondorioekin bat datorrelako askotan- dagokion azterketa kritikoa egin eta oso kontutan hartzekoa dela deritzot.

-a bukaeraren iraupena ala galera

Aurreko atalean aipatutako lehen gakoari helduz, *-a* galdu eta bere izaera aldatu duten edo aldatzen ari diren deituren inguruan sortzen da zalantza. Bi egoera orokor daude:

A) *-a* bukaerak irautea.

Iztuetak ederki bereizten ditu inesiboko deklinazioan *-a* tartekatzen duten eta ez duten izenak.

Lehen arlokoei helduz, Iztuetarenetik honakook *-eta* gehiago-ateratzen ahal ditugu: *Aleguerian* (GD, 81), *Alzarian* (GC, 38, 85), *Azcoitian* (GC, 456), *Azpeitian* (GD, 107, 179; GC, 186), *Bidanian* (gd, 180), *Bizcaian* (GC, 24, 413), *Vizcayan* (GD, 106), *Donostian* (GC, 144), *Errenterian* (GC, 126), *Gueterian*

(GC, 337), *Guipuzcoan* (GC, 359, 360), *Ichasoleorrear* (GC, 96), *Nafarroan* (GC, 203), *Pasaian* (GC, 126), *Ursugoenean* (GC, 193), *Urbian* (GC, 38), *Zaldibian* (GD, 66), *Zaldivian* (GD, 81; GC, 187, 193, 505)...

Inesiboan bezala, beste kasu batzuetan ere tarteka liteke *-a-*. Iztuetak baidu horrelako adibideak: *Bidasoa* (GC, 120), *Donostia* (GD, 21), *Donostiaren* (GC, 127, 146), *Erreteriaz* (GC, 203), *Nafarroak* (GC, 285), *Nafarroaren* (GC, 120), *Nafarroari* (GC, 283), *Ondarribiari* (GC, 331), *Oria* (GC, 109, 114), *Ursugoena* (GC, 191), *Urumea* (GC, 117), *Zumayaren* (GC, 108)...

Kanpotik ekarritako leku deituretan ere, baldin eta *-adunak* badira, badaki bukaera gordetzen: *Españian* (GD, 54), *Francian* (GC, 141, 321), *Franzian* (GD, 54), *Galician* (GC, 413), *Italian* (GC, 326), *Venecian* (GC, 462)...

Beraz, inesiboan *-a-* duten izenon forma, kasu absolutuan, *-az* bukatua izango da; gero aztertuko da artikulua —eta, orduan, galgarria— den ala izenari itsatsita dagoen.

B) *-a* bukaera galtzea.

Aztergai den *Olaberriarekin* erkatzeko egokienak direlarik, hona *-iz* bukatutako izenen adibide batzuk, beti ere *-in* ekarri dutenak inesiboan: *Ernanin* (GD, 179), *Ormaizteguin* (GD, 10). Bestelako bokal bukaera duten beste batzuetan ere ez du *-a-*rik tartekatzen Iztuetak: *Ernialden* (GD, 181), *Hernion* (GC, 58), *Isasondon* (GD, 82), *Lasarten* (GC, 97), *Lazcaun* (GD, 81), *Leaburun* (GC, 97).

Badira kasu absolutuan *-iz* bukatuta dakartzan beste izen batzuk ere: *Berastegui* (GC, 116), *Berrobi* (GC, 116), *Hernani* (GC, 127).

Nabarmen dago, beraz, guztiok aurreko sailekoekin duten aldea; inoiz ez dute *-arik* ageri.

Olaberriari gagozkiola, behin gutxienez aipatzen du Iztuetak inesiboan deklinatuta: *Olaberrian* (GD, 81). Hori horrela, garbi dago izena —lehen sailekoen erara— *Olaberria* dela. Beraren kasuan ere, ondoren ikusiko da amaierako *-aren* izaera, alegia, beti duen beharrezkoa ala deklinabideko kasu batzuetan baino ez.

Amaierako *-a-*: itsatsia ala artikulua?

Amaieran *-a* duten izenen izaera zehazteko, Iztuetak leku genitiboan, adlatiboan eta ablatiboan nola deklinatzen dituen ikusiko da atal honetan.

A) Bukaerako *-a-*, itsatsi eta bereiztezin.

Gauza jakina da, fonetika bilakaera medio, zenbait hizkeratan, gaztelania-tik ekarritako *-ia* amaieradun izen arruntak *-i* bukaeradun bihurtzeko joera da-

goela. Horrela, *sakristiko, pedagogitik, ferira* eta antekoak esango dira. Iztuetak, dena den, badaki horrelakoetan hitzen jatorrizko taxua gordetzen.

Hona adibide batzuk: *Artilleriaco* (GC, 359), *Provincia ascotan* (GC, 701), *Provincia au* (GC, 33), *Provincia barrutic* (GC, 336), *Provincia bat* (GC, III), *Provincia batean* (GC, 129), *Provincia onetaco* (GC, 24, 31, 129, 201...), *Provincia onetan* (GC, 148, 156...), *Provinciaco* (GC, 379), *Provinciatar* (GC, 324)...

Kanpoko leku izenetan ere beti berdin jokutzen du Iztuetak, hots, *-ia* gordez: *Alemaniaco* (GC, 378), *Andaluciaco* (GC, 456), *Armeniatic* (GC, 1), *Asia-ra* (GC, 39), *Asia-tic* (GC, 160), *Bolonia-co* (GC, 54), *Coria-coa* (GC, 460), *Franciaco* (GC, 121, 122, 123, 128, 321...), *Franciara* (GC, 39, 321), *Franciatic* (GC, 175, 186, 395, 398...), *Galiciaraño* (GC, 413), *Groenlandiara* (GC, 141), *Italiacora* (GC, 317), *Italiatic* (GD, 54), *Rusiara* (GC, 39), *Siria-tic* (GC, 160), *Turquiacoac* (GC, 218), *Turquiara* (GC, 39), *Valenciaco* (GC, 283)... Beste batzuetan, izena euskaratu ondoren eratorritako *-ia* azalduko da: *Cataluniaco* (GC, 283), *Españaia* (GD, 104, 167), *Españaico* (GD, 10, 89); GCn, hala ere, *Españaico* (3, 65, 125, 256...), *Españaia* (1, 5, 6...).

Halaber, Euskal Herriko erdal jatorri hurbileko izenetan ederki erakutsiko du bukaerako *-ia* amaiera: *Errenteriaco* (GD, 43; GC, 65, 91, 119, 126, 471...), *Errenteriacoan* (GC, 49), *Placenciaco* (GC, 103, 112), *Santa Mariaco* (GC, 51, 111, 115), *Santa Mariatic* (GC, 432), *Vitoriaco* (GC, 144, 405), *Vitoriara* (GC, 404), ... Baita *-ia* gaztelaniazko hitza euskalduntzean sortu denean ere: *Pasaya* (GC, 119, 491), *Pasaia biac* (GC, 103, 202), *Pasaya bietaco* (GC, 126), *Pasayacoa* (GC, 119)...

Euskal izen zaharragoekin ere gordeko du —gorago aipatu diren deklinabide kasuetan edota beste izenen batekin elkartzean— izen temaren amaierako *-a*; garbi dago izenari itsatsia dagoelako dela.

Hona adibideak: *Alegueriaco* (GC, 78, 452; *Aleguericoac*, hala ere GDn, 186. orrialdean), *Alegueriara* (GC, 115), *Aleriaco* (GC, 114), *Arroaco* (GC, 113), *Beobiatic* (GC, 389), *Bidasoaco* (GC, 122, 123), *Cestoaco* (GC, 74, 86, 459), *Cestoacora* (GC, 113), *Cestoaraco* (GC, 82), *Donostia inguruco* (GC, 146), *Donostiaco* (GD, 10, 21, 31, 37, 53, 165, 166...; GC, 51, 87, 117, 127, 181, 301, 460, 461...), *Donostiara* (GD, 182; GC, 137, 332, 461...), *Donostiara* (GC, 95), *Donostiatic* (GC, 52, 202), *Endayaco* (GC, 338), *Ergobiaco* (GC, 127), *Gabiriaco* (GC, 93), *Gaviriaco* (GC, 102), *Guetariaco* (GC, 94, 208, 474), *Guetariara* (GC, 394), *Guipuzcoaco* (GD; GC), *Nafarroaco* (GD, 102; GC, 117, 406), *Naparroaco* (GD, 42), *Nafarroara* (GC, 303, 173, 202), *Nafarroatic* (GC, 175), *Ondarroaco* (GC, 24), *Oriaco* (GC, 98), *Oriacoan* (GC, 203), *Oriara* (96), *Uliaco* (GC, 210, 462), *Urumeaco* (GC, 118, 127), *Urumeacoan* (GC, 203), *Vidaniaco* (GC, 106; *Goyaz Bidanietan*, hala ere, 54. orrialdean), *Zumayaco* (GC, 55, 508)...

Ez da dudarik, hortaz, Iztuetarentzat izen hauek guztiek, amaierako *-a* galzina, itsatsia dutela eta, beraz, ez duela artikululu mugatzaile izaerarik.

B) Bukaerako *-a*, artikululu.

Sail honetakoetan, aldiz, gorago aipatu kasuetan deklinatzean, Iztuetak tarteko *-a* barik agertzen ditu. Seinale da artikululu dela eta, beraz, kasu jakinotan ez dela jartzen. Aitortu behar, horraatik, ageri duela zalantzaren bat ere (ikus, *Bizkaia*, *Azkoitia* eta *Azpeitiaren* kasuak).

Hona adibideak: *Azcoitico* (GC, 55, 81, 245, 379, 455, 456; 456. orrialdean, hala ere, *Azcoitiaco* ere), *Azcoitira* (GC, 113; 383.ean, ordea, *Azcoitiara*), *Azcoitiatic* (GC, 186), *Azpeiti alderontz* (GC, 391), *Azpeitico* (GD, 107; GC, 55, 82, 83, 91, 113, 458; 457. orrialdean, hala ere, *Azpeitiaco*), *Azpeitira* (GC, 113; *Azpeitiara*, hala ere bi bider: GD, 172; GC, 93), *Bizcaico* (GC, VIII, 24, 35), *Vizcaico* (GC, 397), *Vizcai-co* (GC, 392), *Vizcaira* (GC, 184; 414.ean, ordea, *Bizcaira*), *Vizcai dantza* (GD, 106), *Vizcaitarrac* (GD, 106) (behin, hala ere, *Vizcaitatic*, GCn, 112. orrialdean), *Ursugoeneoac* (GC, 191; *-e*-ren izaera loturazkoa da, izen arruntetan ohi denez).

Beraz, izen hauek era honetakoak genituzke: *Azpeitia -a*, *Azkoitia -a*, *Bizkaia -a*, *Ursugoena -a*.

Olaberriari gagozkiola, Iztuetak *Olaberrico* (GD, 81; Gc, 100, 115) dabil; GDko 81. orrialdean berean, aldiz —*Olaberricoren* ondoan— *Zaldibia-coak* jarriko du, antzeko kasua izan zitekeena garbi bereiziz. Berarentzat, orduan, bukaerako *-a*, artikululu mugatzailea besterik ez da eta ez, nahitaez, deklinabideko kasu guztietan tartekatu beharrekoa. *Olaberria -a*, beraz.

Beste izen batzuen gaur egungo erabilera eta Iztuetaren lekukotza

Iztuetaren izkribuetako erabilerarekin alderatuta, gaur egun bestelako eran agertu ohi diren izen batzuen auzia jorratuko nahi nuke osagarritzko atal honetan.

Batzuetan, auzia, gaur egungo ahozko erabilerak beste zerbait erakusten duelako etorri da; beste batzuetan, orain arteko tradizio idatziak alderantzizko araua zekarrelako; badira, Iztuetarenak ikusita, azterlan honetan neuk azaldu nahi ditudanak...

Ondoko lerrootan ez da kasu horietako bakoitzaren azterketa guztizkorik egingo; bakar-bakarrik, Iztuetak nola erabili zituen aztertuko dut.

Gero, gaur egungo eta lehenagoko beste iturri batzuetatik jasoak kontutan izanik, gauza bat ala beste erabakiko da, behar den lekuan, hots, Euskaltzaindian; izan ere, garbi baitago, ez leku izenak, ez bestelakoak ez direla betiko

eta, hainbatetan, aldaketak aintzakotzat hartu behar izaten direla. Hautalanean lagungarri izan nahi duten lekukotzak ekartzea da helburua, beraz.

Iztuetaren herriaren izenetik hasiko naiz; entzuna dut, gaur egun *Zaldibi*, *Zaldibin*, *Zaldibiko* eta kidekoak esaten omen direnez, Euskaltzaindiaren izen-degikoa aldatu eta, *Zaldibiaren* lekuan, *Zaldibi* proposatu dutela.

Iztuetarenean, horraatik, oso garbi dago *Zaldibia* dela deitura. Aurreko ataletako arrazoiketak errepikatu gabe, jakin bedi, Iztuetarentzat, bere herriaren izenak *-a* bukaera baduela —kasu absolutuan *Zaldivia* (GD, 21; GC, 174)— eta, gainera, ez dela artikulua: *Zaldiviaco* (GC, 30, 69, 106, 115, 156, 169, 193, 504...), *Zaldivia-co* (GC, 58), *Zaldiviacoac* (GD, 81), *Zaldivia-coan* (GC, 27), *Zaldiviara* (GD, 44), *Zaldibiatar* (GD, 182), *Zaldiviatarra* (GD, 182).

Badakit *Legazpiren* inguruan ere sortu dela zalantza, nonbait, orain arteko izen ofiziala *Legazpia* izanik, Euskaltzaindiaren izendegian *Legazpi* ageri zelako.

Amaierako *-a*, jatorriz artikulua izan eta (*Azpeitia -a* eta kidekoak legez), Iztuetarentzat, izenaren erabilera *Legazpia -a* taxukoa izan zitekeenaren kalterik gabe, beraren izkribuetatik, *-a* itsatsiduna behintzat ez zela atera beharko: *Legazpico* dio (GC, 57, 71, 98, 112, 477).

Inesibo kasuan deklinatuta ez diot ikusi; gaur egungo hitzunen ahoan *Legazpin* (eta ez *Legazpiin* aurreragoko ataletako beste batzuen moduan) dela esango nuke eta, beraz, *Legazpi* soila izena.

Beste izen batzuen kasuan, Iztuetaren erabilera ez dator guztiz bat Euskaltzaindiaren izendegian jarritakoekin.

Iruñea -aren inguruan eztabaida ere sortu da Euskaltzaindiak proposatua-ren eta Udalaren nahiaren artean.

Hona Iztuetak nola darabilen: *Iruñaren* (GC, 117), *Iruñeco* (GC, 121, 307, 471), *Iruñera* (GC, 309). Hortaz, berarentzat, izena, arrunten parekoa zatekeen; genitiboan artikulua tartekatuko du (*haranaren* pare), baina leku genitiboan ez (*-e-* loturazkoa bai, *haranekon* bezala). *Iruña -a* da Iztuetarentzat. Aipa dezadan, bidebatez, Idiazabalen ere badela *Iruin* izeneko etxerik.

Ibarra Tolosa ondoko herria, Iztuetarentzat *Ibarra -a* zen. Kasu absolutuan *Ibarra* darabil (GC, 116), baina leku genitiboan ez dio, *-a* itsatsia izan balitz ondobidezkoa litzatekeen *Ibarrako*, *Ibarreco* baino (GD, 41; GC, 95) (*-e-*, loturazkoa).

Ez dakit ahozko erabileran gaur egun horrelako zerbaiten aztarnarik dagoen; ikus, nolana, Euskaltzaindiaren izendegian bertan *ibartar* herritar izena.

*Mutilo*arekin beste aldera gertatzen da. Euskaltzaindiaren izendegian, amaierako *-a*, artikulua bailitzan ageri da (*Mutiloa -a*); Iztuetarenean *Mutiloa-*

ren bukaerako *-a* itsatsia da eta *Mutiloa* dioen legez (GC, 114), *Mutiloaco* (GC, 71, 483) / *Mutilloaco* (GC, 100) esango du; beraz, *-a* hori ez da sekulan ezkutatzen.

Gaur egungo hiztunen ahoan —ezer segurtatzeko, azterketa sakonagoa egin beharko litzatekeen arren— *Mutillooko*, *Mutillootik* eta kidekoak ebakitzeko joera dagoela esango nuke; aurreragoko ataletan adieraziko denez, bokal bikoitzaren oinarrian, *-a* asimilatua dago.

Hondarribiaren kasuan ere, Iztuetak jokabide berbera du. Euskaltzaindiaren izendegian amaierako *-a* artikulua da; Iztuetak, ordea, behin eta berriz ia batere zalantzarik gabe, izenari guztiz itsatsita darabil: *Hondarribia*, beraz, *-a* itsatsi eta guzti.

Ondarribiari ez ezik (GC, 331), *Ondarribiaco* (GD, 59; GC, 24, 33, 101, 121, 123, 208, 320, 326, 328, 331, 336, 342, 346...; behin, *Ondarribico*, GCn 123. orrialdean), *Ondarribiara* (GC, 320, 360), *Ondarribiaraco* (GC, 331), *Ondarribiatarra* (GC, 321), *Ondarribia andia* (GD, 115) eta *Ondarribia chiquia* (GD, 116) idatziko ditu.

Aipamentxo bat, azkenik, gure itsasoaren izenaz. Gure egunotan nagusi den *Kantauri itsasoa* moldearen ordeztu, Iztuetak *Kantauriako itsasoa* darabil (GC, 24 eta 113: *Cantauriaco itsaso*; 462: *Cantauriaco escuadraren*; era berean, 278.ean, *Alonso Cantauriaco*).

Leku genitiboaren atzizkia baliatzeaz gain, *-a* itsatsia gorde egiten du Kantauria (=Kantabria) izena deklinatzean, gaztelaniatik hartu beste izen batzuetan bezala, apartaetzina delako.

IZENEN AMAIERAKO *-a* GAUR EGUNGO AHOZKO ERABILERAN

Auziak *-aurreko* atalean bezalatsu- bi gako nagusi ditu. Lehena, izenak (kasuren batetan, berarik) *-a* hori baduenentz ikustea da; bigarrena, baldin badu, itsatsia duen (beti jartzekoa) ala artikulua den (deklinabideko kasu batzuetan bakarrik azalduko da) erabakitzea.

Zernahi den ere, bailarako hiztunen mintzairan gertatutako fonetika gertaerak direla medio, izenen amaierako *-aren* izaera eta erabilera lauso eta nahasi samar gertatzen dira hainbatetan. Horregatik, nahitaezkoa gertatzen da lekuko hizkeraren ezaugarriak izatea kontutan eta hala egingo da ondorengo ataletan.

***-a* bukaeraren iraupena ala galera**

Lehen gakoari helduz, *-a* galdu eta bere izaera aldatu duten edo aldatzen ari diren deituren inguruan sortzen da zalantza. Bi egoera orokor daude:

A) *-a* bukaerak irautea.

Bailarako euskarari, izen tema bokalez amaitzen bada, *-a-* tartekatzen de-nean kasu inesiboan —izen arruntetan, alegia— fonetika aldaketak sortuko dira.

Ondorioa, *-a-* hori desitxuratuta geratzea izango da. Idiazabal eta Olaberriko euskarari, aurreko bokalak asimilatu egin ohi du *-a-*. Aurreko bokala ere *a* bada, inesiboan, bi *a* geratuko dira, baina ez absolutu singularrean (*-a + -a > -ea*) (Michelena, *F.H.V.*, 114. or.).

Aipatu kasuotan, Mitxelenak leku batzuetako hizkerari atzemandako bokal luze edo bikoitzak sortzen dira (*F.H.V.*, 111-117. or.).

Mendi + anetik, konparazio batera, *iak* hurrengo silabako *a* itxi eta *e* bilakarazi ondoren (*F.H.V.*, 63-64. or.), asimilazioa gertatu eta *mendiin* sortu da (*mendian > *mendien > mendiin*). Baten batzuen ahoan, *ii* hori *i* bihurtu dela ere nabari liteke gaur egun. Era berean esango dira, *elizaan*, *gauzaan*, *ganbaraan*, *etxeen*, *ostoon*, *buruun*...

Eboluzio hau eskuarki gertatzen da bailaran eta ez izen arruntak inesiboan deklinatzean bakarrik; baita deklinabideko beste kasu batzuetan eta antzeko soinu elkarketa gertatzen den bestelako hitz eta esamoldeetan ere. Adibide batzuk ematea baino argigarriagorik ez:

— *mendiak > *mendiek > mendiik*, *mendietatik > mendiititik*... Beste bokal batez amaitu hitzetan ere berdin-berdin: *buruak > *buruek > buruuk*, *ostotako > ostootako*, **gauzaetan > gauzaatan*, *etxearen > *etxeaen > etxeen*...

— *sartu bide da > *sartu bie da > sartu bii da*. Ikus *F.H.V.*n ere (412. or.), Mitxelenaren ustea. Bilakaera berbera Idiazabalgo etxe baten izenean: *Oiarbide > Ojarbide > *Ojarbie > Ojarbii* (*Ojarbi*).

— *etorri dira > *etorri dia > etorri die > etorri dii > etoor dii*.

— Idiazabalgo etxe izenetan ere: *Diegorenea > Di(i)(g)oonea*, *Kaltzasasieta > Kaltza(d)asasiitta*...

Gauzak horrela, Idiazabalen *Urrutikoetxeen*, *Muñoon*, *Oriin* edo *Olaan* entzuten direnean, garbi dago —arestian aipatu esamoldeei begira— bokal bikoitzaren bigarren osagarria beste soinuaren batetik eratorria dela; ondobidean, analogiaz, *a* izan behar (*etik iraganez bakarren batean*, beharbada). Gero, aurreragoko atal batetan, ikusiko da *-a* horren izaera, itsatsia den ala erantsi zaion artikulu mugatzailea den. Oraingoz, orduan, esan dezadan izen horiek, kasu absolutuan, *-a* eta guzti idatzi beharko dutela: *Urrutikoetxea*, *Muñoa*, *Oria*, *Olea*.

Badira —batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago— horrelakoetan bokal soila ebakitzeko joera duten hiztunak ere; jokabide berriagoa dirudi, nolana (Oriin > Orin).

Amaierako -aren zantzuak kasu absolutuan ere nabari dira batzuetan herritarren hizkeran. Horrela, *Olea*, *Eztenaga Errotea* eta abar esango dira beti; *Muñoa* ere entzungo da, baina esamolderik entzunena *Muño* dugu, deklinabideko beste kasuetan gertatu bezala.

-ia bukaeradunei gagozkiela —hori da aztergai dugun *Olaberriaren* kasua eta— *Oria* hartuko da eredutzat. Kasu absolutuan ez da **Orie* (< *Oria*) delako baten aditzez; *Orii* (edo *Ori*) esaten da. Inesiboko kasuan legez, iak *ea* asimilatu bide du (azken atalean aztertuko da -a hori itsatsia duten izenen kasua zabalxeago). Nolanahi dela —oso segurua ez izan arren— L. Eleizalde, bere toponimo zerrendetan (*Listas alfabéticas... R.I.E.V.*), badakar *Orie* etxe izen bat, Itsason dagoena, hain zuzen.

Kidekoa den *Maugiatik* (Idiazabalgo beste etxe baten izena; *Mabii* gaur egun) beharko lukeen **Maugieren* arrastoa, ordea, nahikoa nabarmen dakusagu idatziz ere *Maugiezelaetan* (Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, Oñati: 25-7-1.600 PNot. A-2.540; 8-5-1.602 PNot. A- 2.541).

Era berean entzungo dituzu *Goardii*, *Anttii*, *Etxeberrii* eta abar.

Bada bilakaera honen hurbileko frogarik ere. Hor dugu, gaur egun, *Ola-riagatik* (g galduta) ahozko hizkeran sortzen den *Olarii*, adibidez; *Olariaa* > *Olaria* > *Olarii* gertatu da eta, kasurako, - adun izenak bezalaxe portatzen da. *Olariin* eta *Olarii* (*Olari*) ekarri ditu ahozko ebakeran. Agerian da, hortaz, -ii multzoaren -ia jatorria.

B) -a bukaera galtzea.

Idiazabalen bertan, beste izen batzuekin ez da berdina gertatu. Horrela, inesiboan, *Saletseberriin*, *Bentatxikin*, *Aritzederren* eta abar esaten dira, izen horien erroak, *Saletseberri*, *Bentatxiki* eta *Aritzeder* direlarik, beraz.

Goragoko adibideaz baliatuta berriro ere, izenotan ez da *mendian* > *mendiin* erakorik ageri, hain zuzen artikulurik ez delako tartekatatu. Izen berezi gisa portatzen dira beraz, nahiz eta —gero aztertuko den legez— jatorrian arruntak izan zitezkeen.

Aztergai den *Olaberriari* gagozkiola, elkarrizketatu gehienek, inesiboan deklinatuz *Olaberriin* esango dizute eta, hortaz, lehenen tankerakoa litzateke. Dena dela, *Olaberrin* ebakera ere entzuten da eta berari *Olaberri* dagokioke kasu absolutuan.

Gauzak horrela, aldaera horien nondikoaz galde liteke.

Bigarrenak izan dezake ondorengo atalean aipatuko den bilakaera prozesuarekin zerikusia, baina —goraxeago azaldu denez— soiltze aldera egindako fonetika ondorioa ere izan dezakegu.

Erantzungo du beste batek, ordea, *Olaberriin*, antzeko beste deitura batzuen eraginpean analogiaz moldatua izan litekeela.

Zernahi ere den *Olaberriinen* iraupenak, berari dagokion forma ere bizirik dela esan nahi du beste ezer baino lehen. Aurreko atalean aipatu tradizio idatziarekin bat dator, gainera.

Areago, kasu absolutuan galdetzean, herriaren izena *Olaberrii* dela ere entzuten da, hots, Idiazabalgo *Orii*, *Mabii* eta abarren moduan.

Izen arruntak berezi bilakatu; -aren galera zergatiak

Idiazabalgo etxeen izenez egindako azterketa ikusita, nere ustez, etxearen (edo dena delakoaren) errealitate jakin baten erakuspe edo deskribagarri diren izenetan gorde da ondoen (-a artikululu mugatzailea galdu gabe) izenaren erabilera arrunta. Ordea, denboraren iraganean, etxearen nolakotasuna aldatu bada, izenaren semantika edukia ez da berarekin bat etorriko eta, orduan, ez du deskribapen baliorik izango; fosilizatu egingo da eta etxearen *marka* edo *seinale* huts bihurtu, izen berezi alegia.

Hori horrela, badirudi, *aundia*, *txikia garaikoa*, *azpikoa* edo antzeko adjetiboak dituzten izenek eutsi diotela ondoen lehenagoko izaerari eta horiekien ez dagoela arazo handirik; zaharrenek, behintzat, *Lardizabal aundia*, *Azpikola txikia*, *Garakolea*, *Lizardi goikoa* eta antzekoak erabili ohi dituzte, bigarren osagarria, izen arrunta bailitzan deklinatuz.

Adjetibo horiek erakusten duten ezaugarri berezia ez bide da aldatu, alegia, *Lardizabal aundia*, *Lardizabal txikia* baino handiagoa edo nagusiagoa da orain ere; *Azpikola txikia* ez da *Azpikola aundia* baino handiagoa egin, eta *Lizardi goikoa beekoa* baino gorago dago, egun ere.

Bentatxiki, hala ere, nonbait, galdu egin zuen eta lehenagoko txiki irudia jendearen begietan; izen berezi gisa deklinatu ohi da.

Ez dira hain seguruak *Beekoetxea*, *Goikoetxea*, *Urrutikoetxea* edo antzeko kasuak. Garbi dago beste etxe batzuk egin direnean, horien izenak ez datozela etxearen izanarekin bat. Hala ere, esango nuke, gaur egungo hiztunek eutsi egin diotela arrunt gisa deklinatuz erabiltzeko joerari.

Izenondo batzuen kasuan, ordea, -a artikulua galdu eta berezien pareko bihurtzeko joera askoz nabarmenagoa izan da. *Berri*, *zaar*, *zuri*, *gorri*, *eder* eta abar ditugu adibide garbi. Ezaugarri horiek erraz samar alda litezke eta egin zenean, segurutik, berri izango zen etxea, erabat zaharkitua egon liteke urte

batzuen buruan; zuri zen etxea ere, itxuraldatu egin liteke, dudarik gabe. Horrelakoetan, uste dut, behin baino gehiagotan, izenak lexikalizatu eta etxeari berari dagokion seinale berezi izatera jo duela; gaur egun *Etxezaar*, *Etxeberri*, *Saletseberri*, *Aritzeder* eta antzekoak esaten dituzte hiztun guztiek, nahiz eta ez oso aspaldiko dokumentuetan, oraindik ere, *Etxe zaarra*, *Etxe berria*, *Saletse berria* eta *Aritz ederra* tankerako deiturak agertu.

Ostatu zaarra eta *Torre zaarra*, artikulatu eta guzti, esango dizkizute, hala ere, etxe edo izen haiek ezagutu zituzten guztiek eta ez, hain zuzen, etxeak zaharrak zirelako, herriko beste batzurekin alderatuta baino; *Ostatu berria* eta *Torre berria* ere egon ziren bezalaxe. Behin Torre zaarra desagertuz gero, ordea, dokumentuetan ere, *Torre berriaren* ordeza, *Torre* besterik ez da esango.

Adjetibodun guztion antzekoak dira aposizioak eta izen elkarketak ere: *Arizkorreta Saletsea*, *Eztenaga Torrea*, *Oria Errotea* (kontutan izan, *Oriaren* amaierako *-a* organikoa dela), *Etsegarate Bentea*, *Aizkoeta Arretsea*, *Sastre Etxea*, *Bikario Etxea* eta abar.

Izenon bigarren osagarriok, hasieran, izen arrunt gisa erantsi bide zitzaizkien izen bereziei, baina, urteen iraganean, beren osagarri apartaezin bilakatuko dira. Gorde egin da, horraatik, beren erabilera arrunta, hots, *-a* artikulatu eta guzti.

Elkarketa eta aposizio guztiotan, zenbat eta ohartuago ibili hiztuna bigarren osagarriaren jatorriaz eta esanahiaz, orduan eta gehiago eutsiko dio beraren deskribapen funtzioari, hots, *-a* amaierako artikuluari. Entzunaren arabera, *Saletseren* eta *Arretseren* erailera arrunt hori dago higatuen (ez baita alferrik aldatu izen horiek dituzten etxeen nolakotasuna).

Aztertzen ari den aldaketa prozesuaren frogagarri, azken urteetan egin etxeen izenak *-a* artikulurik gabe moldatzeko joera nagusitzen ari da: *Etxe Aundi*, *Kalbario Berri*, *Toki Txoko*, *Etxe Alai*, *Toki Goxoeta* antzekoak ditugu. Artikuludunen bat ere bada, baina, nolana ere, esango nuke, amaierako *-a* ez dela jadanik artikulatu eta izen berezian txertatu egin dela (ikus, *Bere Naiaren* kasua, adibidez).

Amaierako *-a*: itsatsia ala artikulua?

Amaieran *-a* duten izenen izaera zehazteko, leku genitibo, adlatibo eta ablatibo kasuez galdetu zaie inkestatuei.

Idiazabal eta Olaberriko euskaran, bi eratako bukaerak irtengo dira, bukaerako *-a* itsatsia izan ala artikulatu soila izan.

A) Amaierako *-a*, itsatsi eta bereiztezin.

Kateeko, Muñooko, Oriiko eta honen kideko beste batzuek (*Mabiiko, Antiitiko...*) erakusten digute, izenotan irauin egin duela *-ko* atzizkiaren aurretik bokal bikoitzak; bigarrena ezin da, kasu honetan, artikulua utzitako zantzua izan, zeren eta izen arruntek ez baitute halakorik (*mendiko, etxeko...* eta ez **mendiiko, *etxeeko* edo antzekoak).

Esamolde hauen pean, *Katea, Muñoa, Oria, Maugia, Antia...* ditugu, hau da, *-a* itsatsidun izenak.

Goragoko beste atal batean egin dena osatuz, kasuotako *-ia* bukaeraren fonetika bilakaera esplikatzea komeni da.

Oriiko eta besteak, *sakristiiko, periiko* eta abarren pareko dira. Gaztelan izenotako *sakristia* eta *feriatik* hartuak, euskaraz ere gorde egin dute *-a* itsatsiaren arrastoa.

Gorago azaldu denaren ildotik, izen horietan, lehenik, amaierako bokala aldatu bide zen, *-i*-ak, ondoko *-a* itxi eragin eta *-e* ekarri baitu: *sakristia (ederra) > *sakristie (ederra), peria (ona gaurkoa) > *perie (ona gaurkoa)*. Ondoren —deklinabideko beste kasuen eraginez ere, beharbada— asimilazioz, *sakristii* eta *perii*.

Beste horiek, fenomeno berberen emaitza izango ditugu: **sakristie + -ko > *sakristieko > sakristiiko* eta, antzera, *periiko*.

Era berean gertatu da, deklinabideko beste kasu batzuetan ere (*sakristietan > sakristiittan*).

Dena den, bailarako hizkeran, *i* (eta, oro har, bokal) osteko *-a* itsatsia (edo beraren fonetika aldaera) galduka da hitz askotan (*anai, aitzaki, gaiztakeri, koroi, premi...*); ez da nabari, beharko lukeen *ii*ren arrastorik, Zenbat *anaie* entzuna dut Idiazabalena, nolana, nahiz eta zalantzarikoa izan (*anai* esaten da gaur egun).

Mitxelena ere esaten du zertxobait, *-ia* bukaeradunei artikulua gaineratzean gertatzen denaz (*F.H.V.*, 114-115. or.). *-ia + -a > *-iea > -iia > -ia* bilakaera aipatzen du, *-ia* bukaeradun izenak bizkaieraz artikulua gaineratu eta gero nola geratu diren esplikatzeko; garai bateko *gracii*, *Hostiie* eta abar dartzat bilakaeraren lekuko.

Idiazabalgo hizkeran, berriz, **-iea* hartatik, **-iia > *-iie > *-iii > -ii* gertatu bide da, asimilazio bikoitz baten ondorioz: *Sakristia + -a > *sakristiea > *sakristiie > *sakristiii > sakristii (sakristi)*; artikulurik gabe, emaitza berbera izango zatekeen (*-ia > *-ie > ii*).

Gogora bedi, arestian aipatu *Maugiezelaeta (< Maugiazelaeta)/Maugia* bikoitea eta gaur egungo hizkerako *Mabii*, bilakaera beraren beste agerpen bat baita.

Idiazabaldik kanpoko izenen batean ere nabari da fenomeno hau, nahiz eta hiztunen jokaera orokorra bestelakoa izan. *Donostiaren* kasuan, zenbaiti, *Donostii*, *Donostiiko* eta *Donostiira* esaten entzun dakieke Idiazabalen. Jakina da, beraren jatorrian, *Donostia* berezko *-aduna* dagoela eta ez *Donosti* gure artean zabalduagoa. Hortik, *Oria* bezalaxe portatzea.

-ia bukaeradunetan *iak* nagusitasuna hartu duen bezalaxe, beste batzuetan, beste soinu batzuk gailendu dira. *Muñoarenean*, adibidez, *Muñootik*, *Muñooko*, *Muño* multzoan ageri den *oaren* nagusigoak erakusten digu *-a* organikoaren ondorena. *Kateatik*, ostera, hizketan esan ohi den *Katee* etorri da; ezaguna da Idiazabalen —batzuentzat, behinipehin— oraindik ere, *katea* izen arrunt *-a* organikoduna eta garbi dago etxearenak ere horrelakoan duela abiapuntu.

B) Amaierako *-a*, artikulua.

Lardizabal txikiko, *Urrutikoetxeko*, *Olako*, *Eztenaga Errotako*, *Mediku Etxeko* eta antzeko erantzunek, ordea, ez dute *-aren* aztarnarik ageri, aztertzen ari diren deklinabide kasuetan; bai, ordea, inesiboan. Orduan, galgarria denez, artikulua dela pentsatu behar.

Lardizabal txikia, *Urrutikoetxea -a*, *Olea -a*, *Eztenaga Errotea -a* eta *Mediku Etxea -a* dagoakie; amaierako *-a*, artikulua da.

Olaberriari helduz berriro, galdetu zaien erantzuna, *Olaberriko* izan da; bigarren sailekoekin jarri behar, hortaz. Horrek esan nahi du, *Olaberriaren* amaierako *-a*, artikulua dela eta, horregatik, galgarria, kasuaren arabera. *Mendi, berri* eta antzeko izen arruntak bezalaxe portatzen da (*mendiin, mendiko, berriin, berriko...*).

BIBLIOGRAFIA

ELEIZALDE, L. de: "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas". *R.I.E.V.* XIII-XXVII. Imprenta de la Diputación. San Sebastián, 1922-1936.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal gramatika. Lehen urratsak I.* Iruñea, 1985. Bilbo, 1979.

—: *Euskal Herriko udalen izendegia*. Bilbo, 1979.

IZTUETA, J.I.: *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia*. Impr. de Ignacio Ramón Baroja. Donostia, 1824.

—: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* (Ed. facsímil de la edición de 1847). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1975.

MICHELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca* (3.^a edición). Dip. Foral de Guipúzcoa. San Sebastián, 1985.